



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2015/12/28

Foru Aldundiak “%12” igoko ditu “auto-enplegurako” laguntzak 2016an

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun foru diputatu andreak, Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean izan duen agerraldian, 2016an Foru Aldundiak auto-enplegua eta ekintzailetzea sustatzera bideratutako partida ekonomikoak “%12” handituko dituala iragarri dau. Aldundiko arduradunak, azken urteotan Foru Aldundiak enpresak sortzeko eta martxan jarteko dagozan laguntzen gaineko informazioa emon daian EH Bilduk eskatu dauen balantzearen barruan iragarri dau hori.

Diputatuaren berbetan, Foru Aldundia “2010. urtetik aurrera” dago beharrean denporan zehar iraun daben hiru ildo nagusietan. Lehenengoa, enpresa proiektuak sortzeko eta martxan jarteko aholkularitzea. Bigarren ildoak, enpresa funtzionetan ari dan lehenengo urtean laguntzeko emoten diran diru-laguntzak. Eta, azkenik, hirugarren ildoak, enplegua sortzeko laguntza bereziei jagokena. Jarduketarako ardatz horreetan oinarrituta, Foru Aldundiak, 2012ko urtarriletik 2015eko irailera bitartean, “4.592 laguntza” emon ditu – “7.681 eskaritatik”-, eta laguntza horreen kopurua “23.809.748 eurokoa” izan zan.

Emondako laguntza gehienak bigarren moetaoak dira, hau da, enpresa ekimenen lehen pausuetan laguntzeko emondakoak. Azkenengo lau urteetan laguntza horreek “19,4 milioi” eurokoak izan ziran. Urtez-urte partidak gero eta handiagoak diran arren, Laespadak autortu dau horreen hazkundera ez datorrela bat jasotako eskari kopuruagaz. 2015eko lehenengo bederatzi hilebeteetan erregistrau ziran 2.213 eskariatatik, “704” proiektu esleitu ziran, eta horreen zenbatekoa “3.489.000 eurokoa” izan zan. “Asko dira kanpoan geratzen diranak”, “autonomoak” batez be, bere berbetan “krisi ekonomikoa gehien jasaten dabenak”. Unanuerentzat egoera hori “larria” da, eta “errealidadea ezkutau izana” be larria da.

Podemos Bizkaia adierazo dau penagarria dala auto-enplegua lehentasuna ez izatea Aldundi honentzat. Asun Merineroren berbetan “esfortzua ez da nahikoa”, eta eskaria egin dau foru arauak “jendearen beharretara” egokitu eta partida horreek handitu daitezcan. Foru laguntzen aldetik laguntza askorik jasoten ez daben sektoreetarako “lehentasunezko tratua” be eskatu dau, eta sektore horreen artean hezkuntzea, osasuna edo artea sartu ditu. Laespadak emon dituan datuak kontuan izanda, azkenengo urteetan laguntzak merkataritzan eta motordun ibilgailuen konponketan (%25), jarduera profesionaletan, zientifikoetan eta teknikoetan (%22), eraikuntzan (%12) eta ostalaritzan (%9) zentrau dira batez be, hamalau tipologiatan banandutako sailkapenean.

Urteko azkenengo batzordea izan dan honetan Laespadak azpimarratu dauenez, Aldundiak “urte guztietan” handitu ditu auto-enplegurako partidak, baina baliabideak “mugatuak” dirala autortu dau. 2014an bakarrik, “258” proiektu kanpoan geratu ziran “aurrekonturik ez egoalako” enpresa barriak sortzeko laguntzen artean.

Diputatuak jakinarazo dauenez, bere saila emondako laguntzen “ebaluzioa” ari da egiten une honetan, “beste modu bateko” esparrua ezarteko. Eskarien “konkurrentzia lehiakorra” indartzea aztertzen ari dira, “aurrera egiteko gaitasuna” daukien enpresei laguntzeko, konkurrentzia



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

librean aurkeztutakoen “%30ak” ez dauelako aurrera jarraitzen. Ganera, Laespadak, “ekonomia berdeagaz edo alkartasunagaz” erlazionauta dagozan enpresak indartu behar dirala eta “laguntasuneko lana” be egin behar dala uste dau.

Arlo horretan bat etorri da Alexia Castelo batzarkide sozialistagaz, harek be enpresei “laguntasun handiagoa” emotea eta gaur egungo deialdiaren eraginkortasunari buruzko azterketea egitea eskatu dauelako, “konkurrentzia librearen” ondorioa “lehenengo heltzen danak lehenengo kobretea” dalako, bere berbetan. Batzordekide sozialistak esan dauenez, jarduteko modu horrek potentzialtasun handiagoko proiektuak “kanpoan geratzea” ekarri daike. Batzordekide sozialista “arduratuta” agertu da ekintzaitzaren tipologia ikusita, laguntzak “ostalaritzan, merkataritzan eta eraikuntzan” zentretan diralako.

EAJ/PNV-ko Mikel Baganek, bere aldetik, 2012. eta 2014. urteen artean laguntzak “bikoiztu” egin dirala azpimarratu dau. “Esfortzu garrantzitsua egin da”, baina balorazioa egiteko eta konkurrentzia libreko deialdien gaiari “buelaren bat emoteko” unea dala uste dau. Bere zalantzak agertu ditu Podemos Bizkaiak aurkeztu dauen idearen aurrean, hau da, Foru administrazioak eragina izan daikeala eskariak beste sektore batzuetara bideratzeko orduan. “Ez dakit ze punturaino dan posible horretan eragina izaterik”, esan dau.

EGUAZTENEAN, ABENDUAREN 30EAN, AURREKONTUAK ONARTZEKO OSOKOA ETA KONTROLEKO SAIOA

Eguaztenean, abenduaren 30ean, goizeko 09:00etatik aurrera, 2016ko Bizkaiko Aurrekontuak onartzeko Batzarretako azkenengo izapidea gauzatuko da Gernikako Batzarretxean. Foru Arau proiektuaren erespena, oposizinoko batzarretako taldeek erreserbau dituen 325 zuzenketa-eske partzialakaz (PP-ren 191, EH Bilduren 99 eta Podemos Bizkaiairen 35) helduko da Bizkaiko Batzarretako azkenengo osoko bilkurara, abenduaren 18tik 22ra egin diran Ekonomia eta Ogasuneko batzordeetan baztertuta geratu ostean. Batzorde horreetan EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek alkarregaz aurkeztutako hamabi zuzenketa-eske onartu ziran (horreetako asko herritarrek aurkeztutako zuzenketa-eskeetatik jasotakoak), eta horreek 436.000 euroko eragina izan dabe, 1.178,2 milioi euro hartzen dituan kudeaketa propiorako foru aurrekontuaren barruan. Aurrekontuei buruzko eztabaidaren ostean, Batzar Nagusiek hamahiru gai dituan kontrol saioa deitu dabe: Aldundiari egindako lau itaun eta bederatzi ahozko erantzun-eske.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
28/12/2015

La Diputación aumentará "un 12%" las ayudas al "autoempleo" en 2016

La diputada foral de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha anunciado hoy en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia que la Diputación incrementará en "un 12%" las partidas económicas destinadas a promocionar el autoempleo y el emprendizaje en el Territorio, en 2016. La responsable foral ha ofrecido este dato en el marco de un balance, que había sido solicitado por EH Bildu, sobre las ayudas concedidas por la Institución foral para la creación y puesta en marcha de empresas durante los últimos años.

Según ella, la Diputación foral ha venido trabajando "desde el año 2010" en tres líneas de ayudas que se han mantenido en el tiempo. La primera, el asesoramiento para la creación y puesta en marcha de proyectos empresariales. Una segunda línea destinada a ayudas para la puesta en marcha de empresas durante el primer año de funcionamiento. Y, por último, una tercera vía de ayudas especiales para la creación de empleo. En base a estos ejes de actuación, la Diputación habría adjudicado entre enero de 2012 y septiembre de 2015, un total de "4.592 ayudas" – de un total de "7.681 solicitudes" –, que sumaron "23.809.748 euros".

La mayoría de las ayudas concedidas se agrupan en la segunda tipología, las concedidas para el arranque de iniciativas empresariales que se llevaron "19,4 millones" en el último cuatrienio. Pese a crecer las partidas año a año, Laespada ha reconocido que el incremento de las mismas no va en consonancia con el número de solicitudes recibidas. De las 2.213 solicitudes que se registraron en los nueve primeros meses de 2015, se llegaron a adjudicar "704" proyectos, por un importe de "3.489.000 euros".

EH Bildu, grupo que había pedido la comparecencia de Laespada, ha tachado esta situación de "vergonzosa" y "lamentable". Su portavoz, Josu Unanue, cree que las cifras dadas por la diputada constatan que las partidas para el autoempleo "no son suficientes". "Mucha gente queda fuera", especialmente "autónomos", los que "más sufren la crisis económica", según él. Unanue considera "grave" esta situación y el hecho de que se "haya ocultado la realidad".

Podemos Bizkaia ha lamentado que el autoempleo no sea una prioridad para esta Diputación. "Es insuficiente el esfuerzo", según Asun Merinero, que ha pedido que se adapten las normas forales "a las necesidades de la gente" y que se amplíen estas partidas. Ha reclamado también un "trato preferente" para sectores menos favorecidos por las ayudas forales para la creación de empresas, como el educativo, el sanitario o el artístico. En los últimos años, y según los datos ofrecidos por Laespada, las ayudas se han concentrado este año en el comercio y la reparación de vehículos a motor (el 25%), en actividades profesionales, científicas y técnicas (22%), en la construcción (12%) y en la hostelería (9%), principalmente, en una clasificación dividida en catorce tipologías.

Laespada ha subrayado, en la que ha sido la última comisión del año, que la Diputación ha aumentado "todos los años" las partidas para autoempleo, aunque ha reconocido que los recursos son "limitados". Solo en 2014, "258" proyectos se quedaron fuera "por falta de presupuesto" en las ayudas para la creación de nuevas empresas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La diputada ha informado de que su departamento está realizando actualmente una "evaluación" de las ayudas otorgadas para establecer un marco "distinto". Barajan potenciar la "concurrentividad" de las solicitudes y apoyar aquellas empresas que tengan "capacidad para seguir adelante", ya que el "30%" de las presentadas en libre concurrencia no continúan. Además, Laespada cree que se deben potenciar aquellas empresas relacionadas con la "economía verde o la solidaridad" y que se debe hacer una "labor de acompañamiento" en su ciclo vital.

En este sentido, ha coincidido con la juntera socialista Alexia Castelo quien ha pedido también un "mayor acompañamiento" a las empresas, y un análisis sobre la eficacia de la convocatoria actual, ya que la "libre concurrencia" provoca que "el que antes entra, antes cobra", según ella. Este proceder "puede dejar fuera" proyectos con mayor potencialidad. La apoderada socialista se ha mostrado "preocupada" por la tipología del emprendimiento al concentrarse las ayudas en "hostelería, comercio y construcción".

Por su parte, Mikel Bagan, de EAJ/PNV, ha destacado que entre el año 2012 y el 2014, las ayudas "se han duplicado". "Se ha hecho un esfuerzo importante", aunque cree que es hora de hacer una valoración y "dar una vuelta" al tema de las convocatorias en libre concurrencia. Ha mostrado dudas respecto a la idea de Podemos Bizkaia de que el Gobierno foral pueda dirigir las solicitudes hacia otros sectores. "No sé hasta qué punto se puede influir", ha dicho.

EL MIÉRCOLES 30, PLENO DE APROBACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS Y SESIÓN DE CONTROL

El miércoles, 30 de diciembre, se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika, a partir de las 9 horas, el último trámite parlamentario para aprobar los Presupuestos de Bizkaia del año 2016. El dictamen del proyecto de Norma Foral llega al último pleno del año de la Cámara vizcaína con 325 enmiendas parciales reservadas por los grupos junteros de la oposición (191 del PP, 99 de EH Bildu y 35 de Podemos Bizkaia), tras ser rechazadas en las ocho comisiones de Economía y Hacienda celebradas entre el 18 y el 22 diciembre. En esas comisiones, se aprobaron una docena de correcciones presentadas conjuntamente por EAJ/PNV y PSE-EE (muchas de ellas procedentes de alegaciones ciudadanas) por valor de 436.000 euros, sobre un presupuesto foral para gestión propia que alcanza los 1.178,2 millones de euros. Tras el debate presupuestario, las Juntas Generales han programado una sesión de control con trece asuntos: cuatro interpelaciones y nueve preguntas orales a la Diputación.